

CONCEPCION ARENAL 2024 SARIAK

CONCEPCIÓN ARENAL SARIAK IV. edizioa

2024KO GIZARTE LANGINTZAREN MUNDUKO EGUNA

Sarrera

Sariak NUPeko Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak ematen dituzte, eta, aurten, sari horien IV. edizioa izango da.

Izenburuaren bitartez, Concepcion Arenal omendu nahi da; hau da, XIX. mendearen amaiera aldera, feminismoaren eta gizarte-lanaren aitzindarietako bat izandakoa Espainian.

Sari hauen bidez, gizarte-lanak gure gizarteari egiten dion ekarpena ikusarazi nahi dugu, urtero bi profesionalen lana sarituta.

Sariaren kategoriak

- *Lan profesionala.* Gizarte-langile batentzako saria bere ibilbidearengatik eta gizarte-lanaren garapenera egindako ekarpenarengatik.
- *Ikerketa-lana.* Gizarte-langile batentzako saria bere ikerketa-ibilbidearengatik eta gizarte-lanaren garapenera egindako ekarpenarengatik.

Hautagaien inguruan baloratu beharreko ezaugarriak:

Bi kategorietan:

- ✓ Haren lanaren bitartez, gizarte-lanak gizarteari egin dion ekarpena hobetzen eta ikusarazten laguntzea.
- ✓ Portaera etiko eta deontologiko akatsik gabea izatea.
- ✓ Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko elkargokide izatea.

Lan profesionalaren kategoriari dagokionean:

- ✓ Lanbidean emandako urte-kopurua.
- ✓ Lanbidean lorpen bikainak eskuratzea.
- ✓ Lanbide-praktiketako ikasleen tutorizazioarekiko konpromiso iraunkorra.

Ikerketa-lanaren kategoriari dagokionean:

- ✓ Lanbidean emandako urte-kopurua.
- ✓ Gizarte-lana garatzeko gai interesgarrien inguruko ikerketetan parte hartu izana.
- ✓ Gizarte-lana garatzeko gai interesgarrien inguruko argitalpenetan (artikuluak, eskuliburuak, liburuak) parte hartu izana.

Hautagaiak aurkeztea

- Ez da autohautagairik onartzen.
- Hautagaiak soilik Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialean elkargokideak diren pertsonak edo NUPEko Gizarte Langintzaren Graduak irakasleek aurkeztu ahal izango dituzte.
- Hautagaiak Fakultateko (facultad.humanas@unavarra.es) edo Elkargoko (nafarroa@cgtrabajosocial.es) idazkaritzen bidez aurkeztuko dira. Aurkeztu beharreko dokumentuan ondorengo informazioa jasoko da:

- Proposatzen den hautagaiaren **izen-abizenak**.
- Hautagaitza zein **kategoriara** proposatzen den.
- **Curriculum-aipamen laburra**, proposatzen den kategoriaren ezaugarri orokor eta espezifikoak betetze-maila eta sarietarako hautagai izateko proposamenaren oinarri diren merezimenduak egiaztatzearen.
- Sarietarako hautagai gisa proposatzen den pertsonarekin **harremanetan jartzeko datuak**.

Saritutako pertsonak hautatzea

Honako hauek osatutako epaimahaiak hautatuko du sariduna:

- NUPEko Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa.
- NUPEko Gizarte Langintzaren Graduaz arduratzen den dekanordea.
- Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko lehendakaria.
- Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialean NUPEkin harremanak izateaz arduratzen den kidea.

Baldintzak betetzen dituzten hautagaien artean, epaimahaiak bi saridunak hautatuko ditu.

Sariak ez dute zuzkidura ekonomikorik. Sari gisa, plaka oroigarri bate mango da.

Egutegia

- Hautagaiak aurkezteko epea: 2024 ko urtarrilak 18tik otsailak 16rarte; biak barne.
- Sarituak hautatzea: epaimahaiak 15 eguneko epea izango du eztabaidatzeko, hautagai-zerrendak aurkezteko epea amaitu ondoren.
- Sariaren banaketa: 2024 ko martxoaren 21an, Gizarte Langintzaren Munduko egunaren ekitaldia.